



# TESTULIBURUEN DOAKOTASUN PROGRAMA

JARRAIBIDEAK

# AURKIBIDEA

SARRERA .....	2
1. IKASLE HARTZAILEAK.....	3
2. SORTEN KONFIGURAZIOA ETA DEPARTAMENTUARI JAKINARAZTEA .....	4
2.1. SORTEN KONFIGURAZIOA.....	4
2.2. DEPARTAMENTUARI JAKINARAZTEA .....	5
2.2.1. Ikastetxearen konfigurazioa:.....	5
2.2.2. Liburuen esleipena: .....	6
3. LEGEZKO ORDEZKARIEK PROGRAMARI UKO EGITEA .....	6
4. TESTULIBURUAK IKASLEEI EMATEA .....	6
5. TESTULIBURUAK ITZULTZEA, IKASTURTEA BUKATU DELAKO EDO IKASTETXEZ ALDATZEAGATIK ....	6
5.1. TESTULIBURUAK BERRIKUSTEA: .....	7
5.1.1. Eskumena eta epea.....	7
5.1.2. Liburuen egoera .....	7
5.1.3. Ondorioak .....	7
5.2. DEPARTAMENTUARI JAKINARAZTEA:.....	7
6. MATRIKULAREN IGOERA .....	8
6.1. ORDAINKETA: .....	8
7. FINANTZATU DAITEZKEEN BESTELAKO PREMIAK.....	8
7.1. ORDEZTEA:.....	8
8. DIRU ZUZKIDURA ETA HAREN APLIKAZIOA .....	8
9. DOAKOTASUN PROGRAMA KUDEATZEKO PROZEDURA.....	9
9.1. IKASTETXEAK EMANDAKO BONUA: .....	9
9.1.1. Bona ematea:.....	9
9.2. IKASTETXEAK LIBURUAK EROSTEA: .....	10
10. IKASTETXE OSATUGABEAK:.....	10
11. JASOTAKO KOPURUEN BEHIN BETIKO JUSTIFIKAZIOA:.....	11
11.1. KONTABILITATEKO AGIRIAK ZAINTEA:.....	12
11.2. ERABILI GABEKO ZENBATEKOAK ITZULTZEA: .....	12

# SARRERA

## Testuliburuaren Doakotasun Programa

### [EDUCAko jarraibideak](#)

- Testuliburuaren Doakotasun Programan ikasle hauek daude sarturik: Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza edo Oinarrizko Mailako Heziketa Zikloak ikasten dituzten ikasle guztiak, Nafarroako Foru Komunitateko funts publikoak jasotzen dituzten ikastetxeetan ari direnak.
- Oinarrizko irakaskuntzetako ikasleek **bost ikasturtez** erabiltzeko modukoak izan beharko dira liburuak, Oinarrizko irakaskuntzarako testuliburuak finantzatzeari buruzko martxoaren 25eko 6/2008 Foru Legearen arabera, zeina abenduaren 30eko 19/2011 Foru Legeak aldatu baitzuen (256. NAO).
- Jarraibide hauek eduki orokor batzuk dituzte, ikastetxe guztientzat, baita eduki zehatzagoak ere, kudeaketa-prozedura bakoitzerako.
- Ikastetxe publiko zein itunduek EDUCA erabili beharko dute datu guztiak sartzeko.
- **Posta elektronikoa:** Hezkuntza Departamentuaren eta ikastetxe publikoen eta itunduen arteko komunikazioetarako, helbide elektronikoa hau erabiliko da:

[gratuidad.libros.texto@navarra.es](mailto:gratuidad.libros.texto@navarra.es)

- Ikasturte bakoitzean, ikastetxe bakoitzaren egoera izanen da aitzineko ikasturteetan hartutako erabakien ondoriozkoa (sorten berritze osoa, berritze partziala edo sorta zaharrak atxikitzea).
- Urtero foru-agindu bat argitaratzen da, finkatzeko Administrazioak gehienez ere zer ekarpen egingen duen Testuliburuaren Doakotasun Programa finantzatzeko.
- Hemen dago informazio hori:

<https://www.educacion.navarra.es/eu/web/dpto/becas-y-ayudas/adquisicion-libros-de-texto>

# 1. IKASLE HARTZAILEAK

Hartzaileak izanen dira funts publikoak jasotzen dituzten Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxeetan matrikulatutako ikasle hauek:

- **Lehen Hezkuntzako 1. eta 2. ikasmailetan matrikulatutako ikasleak**
  - Sortak ikasturte bakoitzean berritzen dira.
  - Lehen Hezkuntzako lehen zikloan erabiltzen diren testuliburuak edo ikastetxeak egindako materialek ezaugarri bereziak dituzte eta, horregatik, Doakotasun Programan modu berezitan tratatu behar dira. Irailaren 27ko 61/2010 Foru Dekretuaren 2.2 artikulua ezartzen du ziklo horretan ez dela eskatuko testuliburuak iraunkorrak izatea, eta haiek ikasturte guztietan erosi beharko direla. Hori hala izanik ere, erabilitako materialagatik haiek berritzea nahitaezkoa ez den irakasgaietan, ikastetxeak erabaki dezake haiek berrerabiltzea hurrengo ikasturteetan, Lehen Hezkuntzako gainerako mailetan bezala.
  
- **Lehen Hezkuntzako gainerako ikasmailetan, DBHn eta Oinarrizko Mailako Heziketa Zikloetan matrikulatutako ikasleak.**
  - Sortak bost ikasturtetan erabiliko dira.
  - Oraindik bost urte edo gutxiagoko sortak erabiltzen badira, bakarrik % 0,5 ordeztu ahaliko dira, narriadura dela-eta.
  - Epe hori iraganik, aukera hauek daude:
    - Berritzea: sorta osoa aldatzea
      - Salbuespenez, eskaera egin eta arrazoiak azaltzeko txosten bat aurkezten bada, berritze partziala baimentzen ahaliko da (sorta guztia elkarren segidako bi urtetan aldatzea). Aukera horretan, berritu gabeko liburuen artetik % 8 ordeztu ahaliko dira lehen urtean.
    - Ordeztea: testuliburu zaharrak atxikitzea; kasu honetan, % 25 ordeztu ahaliko dira, narriadura-dela eta, baina ezin izanen da irakasgai oso bat aldatu.

**Oharra:** 5 urte baino gehiagoko sortak dituzten ikastetxe guztiei “**hautaturiko aukerari**” dagokion agiria bidaliko zaie martxoan, adieraz dezaten sortak berritu nahi dituzten, edo sorta zaharrekin jarraitu nahi duten (eta batzuk ordeztu).
  
- **Hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleak**
  - Hezkuntza-premia bereziak (HPB) dituzten ikasleen egoerak askotarikoak dira eta Doakotasun Programak haiei guztiei eman behar die erantzuna. Horregatik, halako diagnostikoa izan eta material egokitua erabiltzen duen ikasle bakoitzarentzat urteko zuzkidura bat ezarri da, nahitaezko irakaskuntzako zeinahi ikasmailatan matrikulaturik dagoela ere.

- HPBak dituzten ikasleek beren ikaskideen material bera erabiltzen badute, ikaskideen tratamendu bera izanen dute Doakotasun Programan.
- Departamentuari jakinaraztea: ikastetxe publikoak edo itunduak izan, EDUCA aplikaziotik hartuko da informazioa. Horretarako, ikastetxeek **abuztuaren 31 baino lehen** bete beharko dituzte datuak: *Zerbitzu osagarriak > Testuliburuak > Ukoak eta HPBak (EDUCAko jarraibideak: 4.2).*
- **Zer egin liburuekin indarraldia bukatutakoan:**
  - Liburuen indarraldia bukatutakoan, ikastetxeek aukera hauek izanen dituzte:
    - Ikasleei uztea.
    - Ikastetxean berrerabiltzea (liburutegian, guztiek erabiltzeko...).
    - Testuliburuak mankomunitateen bidez birziklatzea (lehenik eta behin, estalkia eta ikaslearen identifikazio-datu guztiak kendu beharko zaizkio liburuari).
    - GKEei ematea (ikaslearen identifikazio-datu guztiak kendu beharko dira).

## 2. SORTEN KONFIGURAZIOA ETA DEPARTAMENTUARI JAKINARAZTEA

### 2.1. SORTEN KONFIGURAZIOA

Sortak konfiguratzeko orduan, kontuan hartu behar da sorten bidez helburu pedagogikoak lortu behar direla; hau da, hezkuntza-proiektuan, curriculum-proiektuan eta zikloko edo gelako programazioan adierazitako helburuak.

EDUCAn soilik konfiguratuko dira ikastetxeak Doakotasun Programarako proposaturiko liburuak, ikastetxeak egindako materialak edo guztiek erabiltzeko materialak.

Ez dira Doakotasun Programan sartzen testuliburuak lotutako materialak, beren izaeragatik hurrengo ikasturteetan ikasleek berrerabili ezin dituztenak, Lehen Hezkuntzako lehen ziklorako eta hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleendako bideratuak izan ezik. (61/2010 Foru Dekretua, irailaren 27koa, Oinarrizko irakaskuntzarako testuliburuak finantzatzeari buruzko martxoaren 25eko 6/2008 Foru Legea garatzeko erregelamendua onesten duena; 2.2 artikulua). Horregatik, **ezin da koadernorik sartu.**

Honako hauek egon daitezke sortetan:

- **Testuliburuak.**
- **Ikastetxeak prestatutako curriculum-materiala:** ikastetxeko irakasleek edo irakasle-taldeek eginikoa.
- **Guztiek erabiltzeko curriculum-materiala:** ikasleek eta, hala badagokio, irakasleek partekatzen dituzten materialak dira, edozein dela ere bitartekoa edo euskarria.

- **Liburu digitalak:** Doakotasun Programaren barruan liburu digitalak erostea onetsiko da, baldin eta foru-legeak ezartzen dituen iraunkortasun- eta autosufizientzia-baldintzak betetzen badituzte. Ondorio horietarako, honako definizio hauek hartuko dira aintzat:
  - **Liburu digitala:** Curriculum-edukiak erabiltzeko lizentzia. Hardware-euskarriak gaur egun ez daude Doakotasun Programan jasota.
  - **Iraunkortasuna:** Testuliburuaren Doakotasun Programan sartu ahal izateko, argitaletxeek konpromisoa hartu beharko dute liburuak 5 urtez egonen direla indarrean.
  - **Autosufizientzia:** Lizentziak curriculum osora zuzenean sartzeko aukera eman behar du, testuliburu baten baldintza beretan. Edukiak ez du partziala izan behar (ez dira onartuko ariketak edo material osagarria soilik dituzten lizentziak).
  - Ikastetxeak lizentzia digitalen pilotajearen parte hartzen badu, ezin izanen ditu sartu lizentzia horiek Testuliburuaren Doakotasun Programan.
  - Ikasleak ezin dira behartu lizentzia erabiltzeko hardwarearen euskarria eta/edo haren osagarriak eskuratzera.

#### **KONTUAN HARTU BEHARREKOAK:**

- Arlo edo eremu baterako konfiguratu behar izanez gero, non liburuarekin zein ikastetxeak egindako materialarekin lan egiten den, azken hori honela konfiguratu daiteke: Testuliburu, Argitaletxea: "Materiala".

## **2.2. DEPARTAMENTUARI JAKINARAZTEA**

EDUCA aplikaziotik hartuko da matrikulari eta aukeratutako testuliburuari edo materialari buruzko informazioa. Horregatik, ikastetxeek datuak abuztuaren 31 baino lehenago bete beharko dituzte.

### **2.2.1. Ikastetxearen konfigurazioa:**

2026-2027 ikasturtetik aurrera, liburuen konfigurazioa automatikoki kargatuko da ikasmaita guztietan, urtero berritzen direnetan izan ezik (Lehen Hezkuntzako 1. eta 2. mailak, CBU, DOH, GNO eta curriculum egokituko programa).

Berritu beharreko sortak dituzten gainerako ikasmailetarako, Doakotasun Programak liburuak/materialak hautatzeko sarbidea emanen die. Sortak indarrean badaude, konfigurazioa blokeatuta egonen da.

Sortaren konfigurazioa: Educaren bitartez: Zerbitzu osagarriak > Testuliburuak > Ikastetxearen konfigurazioa. (EDUCAko jarraibideak: 2).

Konfiguratzeko, ez dute hautatu behar "zaharra-ordeztu" oharra duen libururik, ezta 5 ikasturte baino gutxiagoko indarraldia duen libururik ere (erosten deneko urtea + 5), salbu eta Lehen Hezkuntzako 1. eta 2. mailatan.

Argitaletxeak konpromisoa hartu du liburu horiek epe horretan editatzeko.

### 2.2.2. Liburuen esleipena:

Ikasleei liburuak urtero eta maila guztietan esleitu behar zaizkie, berritu behar diren edo ez kontuan hartu gabe.

Educaren bitartez: Zerbitzu osagarriak > Testuliburuak > Liburuen esleipena. (EDUCAko jarraibideak: 5).

## 3. LEGEZKO ORDEZKARIEK PROGRAMARI UKO EGITEA

Programari uko egitea erabakitzen denean, legezko ordezkariak, ikaslea edozein ikasmaitan matrikulaturik egonik ere, "Uko egiteko agiria" bete eta ikastetxean aurkeztu beharko dute, ikastetxeak horretarako adierazten dien epean.

Uko egiteko agiri hori legezko ordezkarien eskura izanen da ikastetxean eta webgunean. Halaber, Educan eskuratzen ahal da, hemen: *Zerbitzu osagarriak > Testuliburuak > Ukoak eta HPBak ("PDF txostena sortu" botoia)*, ukoa erregistratu ondoren (EDUCAko jarraibideak: 4.1).

## 4. TESTULIBURUAK IKASLEEI EMATEA

Testuliburuekin batera, ikastetxeek "**Entregaren frogagiria**" emanen diete legezko ordezkariari (EDUCA, *Zerbitzu osagarriak > Testuliburuak > Liburuen esleipena > "Hartu-agiria" botoia*; *EDUCAko jarraibideak: 5.2*), eta hor jasoko da entregatu diren liburuen zerrenda. Legezko ordezkariak sinatu ondoren, ikastetxean entregatuko da.

## 5. TESTULIBURUAK ITZULTZEA, IKASTURTEA BUKATU DELAKO EDO IKASTETXEZ ALDATZEAGATIK

Oinarrizko irakaskuntzarako testuliburu finantzatzeari buruzko martxoaren 25eko 6/2008 Foru Legearen garapenerako erregelamendua onetsi zen irailaren 27ko 61/2010 Foru Dekretuaren bidez, eta haren 7.1 artikulua haxe dio: "Testuliburuaren Doakotasun Programaren hartzaila den ikasleak behar bezala eta kontuz erabili eta zaindu beharko ditu liburuak; horrez gain, ikasturtea amaitzen denean edo ikaslea beste ikastetxeren batera joaten delako baja ematen zaionean, testuliburuak ongi zainduta eta erabilia itzultzeko betebeharra izanen du".

Ikasturtea bukatutakoan edo ikaslea beste ikastetxe batera doanean, ikastetxeek "Itzulketa-agiria" emanen diete, sinatua, ikasleen legezko ordezkariari. Egiazki itzultitako liburuak agertuko dira agiri horretan. Educan, Zerbitzu osagarriak > Testuliburuak > Itzulketak ("Itzulketa-agiria" botoia), itzulketa erregistratu ondoren.

**Testuliburuak itzultzea ikasturtea amaitutakoan:**

Testuliburuak ekainean itzuli beharko dira, ikasturtea amaitutakoan, ikastetxe bakoitzak ezarritako moduan eta egunetan.

### **Ikastetxez aldatzea:**

Ikasle bat ikasturtea amaitu baino lehen beste ikastetxe batera joaten bada, testuliburuak itzultzen dituela ziurtatuko da, eta "Itzulketa-agiria" emanen zaio; agiri horren eredia EDUCAn sortzen da (Zerbitzu osagarriak > Testuliburuak > Itzulketak), eta legezko ordezkariari emanen zaie, ikastetxe berrian aurkezteko.

### **Zaintzea:**

Erregelamenduaren 5.3 artikuluekin bat: "Funts publikoak jasotzen dituzten ikastetxeek haietan matrikulatutako ikasleek erabilitako testuliburuak ongi erabil daitezzen zainduko dute, bai eta iraun dezaten ere, testu liburuak erabiltzen dituzten aldietan".

## **5.1. TESTULIBURUAK BERRIKUSTEA:**

### **5.1.1. Eskumena eta epea**

Ikastetxeko eskola-kontseiluak aukeratutako batzordeak (zeina Oinarrizko irakaskuntzarako testuliburuak finantzatzeari buruzko martxoaren 25eko 6/2008 Foru Legean aipatzen baita) testuliburu guztiak berrikusiko ditu 30 ekainaren baino lehen, batzordeak berak ezarritako prozedurari jarraikiz; hala xedatu zuen martxoaren 25eko 6/2008 Foru Legearen garapenerako erregelamendua onetsi zuen irailaren 27ko 61/2010 Foru Dekretuko 13.2 artikulua.

### **5.1.2. Liburuen egoera**

Ikastetxe publikoek nahiz itunduek EDUCAn idatziko dute zein den liburuen kontserbazio-egoera, eta aipatuko dute zer liburu ez diren itzuli edo hondatuta dauden.

Badago "Itzulketa-eskutitz" bat ere, non itzuli ez diren edo hondatu diren liburuak zehazten baitira. (EDUCAko jarraibideak: 6)

### **5.1.3. Ondorioak**

Materiala ez itzultzeak edo hondaturiko materiala ez ordezteak ikasleari eragotziko dio Doakotasun Programan sartzea, materiala itzultzen edo ordezten ez duen bitartean.

## **5.2. DEPARTAMENTUARI JAKINARAZTEA:**

Ikastetxe publikoen zein itunduen kasuan, EDUCA aplikaziotik hartuko da informazioa. Horretarako, ikastetxeek abuztuaren 31 baino lehenago bete beharko dituzte datuak.

Educaren bitartez: Zerbitzu osagarriak > Testuliburuak > Itzulketak. (EDUCAko jarraibideak: 6).

## 6. MATRIKULAREN IGOERA

Matrikula-igoera dagoela esaten da, ikastetxean ikasmaila bateko talde guztietako ikasleen kopuru osoa igo bada, ikasturte baten bukaeratik hurrengoaren hasierara.

### 6.1. ORDAINKETA:

Matrikula-igoera ordainduko da Hezkuntza Departamentuak apirilaren 30era arte eskura dituen datuen arabera.

Ordaindu beharreko sortak ezartzeko, kontuan hartuko da zenbat ikasle dauden matrikulatuta eta zenbat sorta ordaindu diren berrizetik.

## 7. FINANTZATU DAITEZKEEN BESTELAKO PREMIAK

Honako hauek direla-eta sortzen ahal diren premiak:

- Ordeztea
- Aukerako irakasgaiak edota gainditu gabekoak hautatzea
- Ingelesez Ikasteko Programako edo programa eleaniztuneko premiak
- Eskuratze-premiak gradu anitzeko unitateetan (ikastetxe osatugabeetan soilik).

Hezkuntza Departamentuari eskatuko zaizkio urriaren 31 baino lehen, posta elektronikoz. Agiri horiek EDUCAn eskuratu daitezke (Zerbitzu osagarriak > Testuliburuak > Kudeaketa-modalitatea).

**Eskaerarekin batera, txosten bat bidali beharko da, azaltzeko zer premia dagoen.**

### 7.1. ORDEZTEA:

Ikastetxeak erosiko ditu, zuzenean, hondatutako edo itzuli gabeko testuliburuak, eta hori finantzatuko da aurreko ikasturteko gerakinaren –erabili gabeko zenbatekoen– kargura, erabilera orokorreko material didaktikoa eta informatikoa erosi aitzin.

Baldin eta Administrazioak ikastetxe bati egiten dion ekarpena, guztira, ez bada aski aurreko paragrafoan aipatu bezala testuliburuaren erosketa finantzatzeko, ikastetxeak txosten bat bidali beharko dio Hezkuntza Departamentuari, inguruabar hori kontabilitatearen aldetik justifikatzeko, eta defizita finantzatzeko eskatuko dio.

Hezkuntza Departamentuak ikastetxeei eska diezaietxe hondatutako materiala emateko; horrela, materiala aztertu eta hondatuta dagoela egiaztatuko du, eta, behar izanez gero, liburuak ordezteko aintzat hartu behar diren irizpideak aldatuko ditu.

## 8. DIRU ZUZKIDURA ETA HAREN APLIKAZIOA

**Foru-agindu batek urtero finkatuko du Administrazioak gehienez ere zer ekarpen egingen duen Testuliburuaren Doakotasun Programa finantzatzeko.**

Foru-agindu hori onetsi ondoren, horren berri emanen zaie ikastetxeei.

- **Transferentzia:** Hezkuntza Departamentuak ikastetxeetako funtzionamendu-gastuetarako baimendutako kontuetan sartuko ditu ordaindu beharreko zenbatekoak, Testuliburuaren Doakotasun Programa gauzatu ahal izateko. Ikasturteko lehen hiruhilekoan ordainketa-prozesua egingen da, eta, lehenik, guztizkoaren % 80 ordainduko da, Hezkuntza Departamentuak abuztuaren 31 baino lehen eskura dituen datuen arabera, eta, ondoren, gainerako % 20a. Hirugarren ordainketa bat egon daiteke, kasuan-kasuan bidezkoak diren erregularizazioekin.
- **Aplikazioa:** Administrazioak ikastetxe bati egiten dion guztizko ekarpena, guztira, handiagoa bada Doakotasun Programa aplikatuta sortutako gastua baino, jarraibide hauen 8.1 puntuaren arabera eta berritze-premiak finantzaturik, gerakina baliatzen ahalko da guztiek erabiltzeko material didaktikoa eta informatikoa erosteko.

Baldin eta Administrazioak ikasle bakoitzeko onetsitako modulua txikiagoa bada Doakotasun Programa aplikatuzetik sortutako gastua baino, ikasleen legezko ordezkariak ordaindu beharko dute diferentzia hori, baina, hala ere, dagokion ikasturtean testuliburua erabiltzeko eskubidea besterik ez dute bereganatuko horregatik.

## 9. DOAKOTASUN PROGRAMA KUDEATZEKO PROZEDURA

EDUCAn, kasu guztietan, "Ikastetxearen beraren kudeaketa" agertuko da. Hala ere, berritu beharreko ikasturteetan bonuak jaulkitzen ahalko dira.

Gainerako kasuetan, testuliburuak soilik erosiho dira liburuak **ordeztu behar direnean edo matrikula igo denean**. Ikasleak zer ikastetxetan dauden matrikulaturik, ikastetxe horrexek erosi eta emanen dizkie testuliburuak.

### 9.1. IKASTETXEAK EMANDAKO BONUA:

Ikasturtea bukatu baino lehenago, aukeratu dituzten testuliburuaren zerrenda emanen diete ikastetxeek legezko ordezkariari, haiek nahi duten establezimenduan erreserba ditzaten.

#### 9.1.1. Bonua ematea:

Ikastetxe publiko eta itunduak: ikasleentzako liburuak hautatu beharko dituzte, eta horiek EDUCAn dagokion atalean grabatu; arreta handiz berretsi beharko dute. Programan sartutako ikasle guztiei EDUCAn bitartez luzatuko zaie bonua, uko egin diotenei izan ezik. Zerbitzu osagarriak > Testuliburuak > Liburuaren esleipena (Bonuak botoia).

Ikastetxe guztiek ikasle bakoitzeko bonu baten lau ale emanen dituzte:

- Ikastetxearentzako alea, ikastetxeak beretako hartuko baitu, bonua ikasleari eman diola frogatzeko.
- Ikastetxeak hiru bono hauek emanen dizkie legezko ordezkariari:
- Legezko ordezkariendako alea.

- Bi ale liburu-dendarentzat:
  - Liburu-dendak ale bat ikastetxeari itzuliko dio, fakturarekin batera.
  - Beste alea liburu dendan geldituko da, frogagiri modura.

Ikaslearen legezko ordezkariak Testuliburuaren Doakotasun Programari atxikitako dendetan erosi beharko dituzte testuliburuak (bonua onartuz gero, atxikita daudela ulertuko da), bonuaren 3 aleak emanda. Horietako bat ikasleei itzuliko zaie.

Dendek jaulkitako fakturak entregatu behar dizkiote ikastetxeari (faktura horiek ikastetxearen izenean jaulki beharko dira), bonuaren ale batekin batera.

Dendek entregatutako fakturretan, testuliburuak erosteko ordaindu beharreko prezioa jasoko da (61/2010 Foru Dekretua, irailaren 27koa).

Ikastetxeek, era berean, egiaztatuko dute emandako bonuak bat datozela jasotako fakturrekin.

Ikastetxeak testuliburuak ikaslearen izenarekin, mailarekin eta ikastetxearekin identifikatuko ditu, ikasturtea hasi eta lehen hamar egunetan. EDUCAk pegatina bat sortuko du ikastetxe publiko eta itunduentzat: Zerbitzu osagarriak > Testuliburuak > Liburuaren esleipena (Pegatinak botoia).

## 9.2. IKASTETXEAK LIBURUAK EROSTEA:

Ikastetxeek testuliburuak eskuratuko dituzte berek ezarritako moduan, eta fakturazioaren aldetik gutxieneko baldintza hauek bete beharko dituzte:

Fakturak ikastetxearen izenean egonen dira, eta fakturretarako ezarritako baldintza formal guztiak bete beharko dituzte (61/2010 Foru Dekretua, irailaren 27koa).

Fakturretan agertu beharko da Doakotasun Programan sartutako testuliburuengatik ordaindu beharreko prezioa (eta ez beste edozein kontzepturengatik ordaindu beharrekoa). Kontzeptu hori garrantzitsua izanen da kontuak onesteko ziurtagiriaren amaierako saldoa kalkulatzekoan. Nafarroako Gobernuaren ekarpena gainditzen duen zenbatekoa ikasleen legezko ordezkariak hartu beharko dute beren gain, irailaren 27ko 61/2010 Foru Dekretuaren 16.2 artikuluan zehazten den moduan (foru-dekretu horren bidez onetsi zen Oinarrizko irakaskuntzarako testuliburuak finantzatzeari buruzko martxoaren 25eko 6/2008 Foru Legea garatzeko erregelamendua).

Ikastetxeak testuliburuak ikaslearen izenarekin, ikasmalarekin eta ikastetxearekin identifikatu beharko ditu, ikasturtea hasi eta lehen hamar egunetan. Ikastetxe publiko eta itunduetan, EDUCAk pegatina bat sortuko du horretarako. *Zerbitzu osagarriak > Testuliburuak > Liburuaren esleipena (Pegatinak botoia).*

## 10. IKASTETXE OSATUGABEAK:

Ikastetxe osatugabetzat hartuko dira irakasten duten etapako –edo etapetako– ikasmaila bakoitzeko unitate bat ez dutenak.

Ikastetxe horien egoera berezia kontuan hartzeko, testuliburuak, guztiek erabiltzeko materialak eta/edo ikastetxeak berak prestatutako materialak erosi behar badira, **ez sorta osoak eskuratu beharra dagoelako**, baizik eta ikasle guztientzat edo batzuentzat liburu solteak erosi beharra dagoelako (ikasmaila desberdinetako ikasleak irakasgai guztietan edo batzuetan multzokatu direlako), honako hauek hartuko ditugu kontuan:

Gainerako ikastetxeei aplikatzen zaizkien baldintza berberak aplikatuko zaizkie: sorten iraupena (5 urte), ordezea, berritzea, matrikula-igoerak, aukerako irakasgaiak eta gainditu gabekoak, eta eleaniztasunari lotutako beharrak (IIP).

Talde batean ikasmaila desberdinak badaude, honela adieraziko da EDUCAn:

Ikasturte batean ikasmaila desberdinetako ikasleak badaude, ikasle bakoitzari bere ikasmailari dagozkion liburuak eta/edo materialak esleitzen ahalko zaizkio.

Ikasle guztiei liburu eta material berak emanda lan egitea erabakitzen bada, liburu eta/edo material horiek esleituko zaizkie EDUCAn.

Aurreko ikasturteekin alderatuta ikasle kopurua aldatzen bada, ez ikasle berriak sartu direlako (matrikula-igoera), eta beharrezkoa bada liburuak erostea ikastetxeak nahikoa liburu ez duelako, horren berri eman beharko da, "Erosketa-beharrak ikasmaila bat baino gehiagoko unitateak dituzten ikastetxeetan" izeneko agiria betez. Agiri hori EDUCAn egonen da eskura (Zerbitzu osagarriak > Testuliburuak > Kudeaketa-modalitatea). Aipatutako agiria Hezkuntza Departamentura igorri beharko dute posta elektronikoz, [gratuidad.libros.texto@navarra.es](mailto:gratuidad.libros.texto@navarra.es) helbidera, **urriaren 31 baino lehen. Premia justifikatzen duen txostena erantsi beharko da, eta hartan jaso beharko da zer liburu dituzten eta zer liburu behar dituzten.**

## 11. JASOTAKO KOPURUEN BEHIN BETIKO JUSTIFIKAZIOA:

Eskumena, epea eta dokumentazioa: Testuliburuaren Doakotasun Programako sarreren eta gastuen behin betiko justifikazioa **eskola-kontseiluaren** bidez onetsiko da; horretarako, eskola-kontseiluak onetsiko du ikastetxeak testuliburuak erosteko dituen kontuen egoera, eta ateratzen den saldoa adieraziko.

Ikastetxe publikoek eta itunpeko ikastetxe pribatuak ekainaren 30a baino lehen bidali beharko diote Hezkuntza Departamentuari ikastetxeko eskola-kontseiluaren ziurtagiri hori, justifikazio-programen bidez.

Ikastetxe publikoak: Justifikazioaren dokumentua edo "doakotasunaren justifikazioaren kontuen egoera" sortzeko, bide honi jarraitu behar zaio: Ecoeduca/Utilitateak/Kudeaketa ekonomikoa/Justifikazio espezifikoa/Justifikazio espezifikoa baten kontuen egoera.

Eskola-kontseiluak kontuak onetsi ondoren, atal honetatik bidaliko dira: Kudeaketa ekonomikoa/Eranskinak sortzea/Justifikazio espezifikoa baliozkotzea.

Nahi izanez gero, Ecoeducan duzue doakotasunaren justifikazio espezifikoa buruzko eskuliburua: Utilitateak/Dokumentuak/Eskuliburuak eta bideotutorialak/Eskuliburuak/Kudeaketa ekonomikoa.

*Ikastetxeak sortutako materiala Liburuen Doakotasun Programaren barruan sartu baduzue, gastu horren kalkulari buruzko txostena bidali behar duzue posta elektronikoz [gratuidad.libros.texto@navarra.es](mailto:gratuidad.libros.texto@navarra.es) helbidera. Kontuan izan behar da bakarrik justifikatu behar dela ordaintzea eragin duten ikasmilengatik eta ikasleengatik.*

Itunpeko ikastetxeak: gastuen justifikazio ekonomikoa bete beharko dute, eta fakturak erantsi, hemen: <https://appseducacion.navarra.es/concierta>.

“Kontuak onetsi izanaren egiaztagiria” dokumentua “CONCIERTA” aplikaziotik deskargatuko da, eta eskola-kontseiluak onetsi, sinatu eta zigilatu ondoren, aplikazio horretara igoko da. Gainera, ikastetxeak sortutako materiala sartu bada Testuliburuen Doakotasun Programan, gastu horren kalkulari buruzko txostena ere aurkeztu beharko da. Kontuan izan behar da bakarrik justifikatu behar dela ordaintzea eragin duten ikasmilengatik eta ikasleengatik.

### 11.1.KONTABILITATEKO AGIRIAK ZAINTEA:

Egindako gastuaren frogagiriak eta gainerako agiri ekonomikoen jatorrizkoak ikastetxeak gordeko ditu, eta, Hezkuntza Departamentuak nahi izanez gero, eskuratzen ahalko ditu.

### 11.2.ERABILI GABEKO ZENBATEKOAK ITZULTZEA:

Ikastetxe itunduen kasuan, Hezkuntza Departamentuak gastuen justifikazioa egiaztatuko du CONCIERTAn, eta Doakotasun Programan aplikatu ez diren eta guztiek erabiltzeko material didaktiko eta informatikoa erosteko erabili ez diren zenbatekoak itzultzeko eskatuko du.

Ikastetxe **publikoetan**, eskola-kontseiluak Doakotasun Programarako onetsiriko kontabilitateko saldoa positiboa baldin bada, 153/2023 Foru Dekretuaren 10. artikuluan xedatutakoa aplikatuko da (153/2023 Foru Dekretua, irailaren 6koa, Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxe publikoen funtzionamenduak sortzen dituen diru-sarrera eta gastuen erregimena arautzen duena).